ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko martxoaren 16a, ostirala • 32 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## NEKAZARITZA SAILA

**118/2018 Foru Agindua, martxoaren 9koa, onartzen duena Arabako Lurralde Historikoan hazitarako patatak ekoizten diren guneetan birosi arriskua arintzeko dirulaguntzen 2017-2018 deialdia**

Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 16ko 57/2010 Dekretuaren bidez onartu ziren Arabako Lurralde Historikoan hazitarako patatak ekoizten diren guneetan birosi arriskua arintzeko dirulaguntzen oinarri arauak.

Dekretu horren 5. artikuluak xedatzen duenez, urtero laguntza deialdi bat onartuko da. Deialdian, eskaerak aurkezteko epea adieraziko da, eta dirulaguntzak emateko erabiliko den kreditua zehaztuko da.

Arabako Foru Aldundiaren 2018ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko "hazitarako patata baztertua" izeneko 40.1.01.42.01.479.00.05 partida 10.000,00 euroz hornitu da.

Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak, 2018ko otsailaren 9an, txostena eman zuen, proposatuz onar dadila Arabako Lurralde Historikoan hazitarako patatak ekoizten diren guneetan birosi arriskua arintzeko dirulaguntzen 2017-2018 kanpainarako deialdia. Deialdi hori azaroaren 16ko 57/2010 Foru Dekretuan jasotzen diren oinarri arautzaileen araberakoa izango da (2010eko azaroaren 24ko ALHAO, 134 zk.).

Aginduzko txostenak aztertu dira; horregatik, dagozkidan ahalmenez erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Arabako Lurralde Historikoan hazitarako patatak ekoizten diren guneetan birosi arriskua arintzeko dirulaguntzen 20127-2018 kanpainarako deialdia, zeina azaroaren 16ko 57/2010 Foru Dekretuan jasotzen diren oinarri arauen araberakoa izango den.

Bigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 10.000,00 euro gorde ditzala Arabako Foru Aldundiaren 2018ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko "Hazitarako patata baztertua" izeneko 40.1.01.42.01.479.00.05 partidan (xedapen erreferentzia: 18.1.18.105.888/000); kreditu hori gehitzea ere izango da zenbateko gehigarriekin, betiere Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak, urriaren 19koak, 21. artikuluan ezarritako mugen barruan. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, hasierako zenbateko erreserbatua adina izango dira.

Hirugarrena. 2018an, eskaerak aurkezteko epea 20 egunekoa izango da foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 9a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*
*EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO*

*Nekazaritza zuzendaria*
*MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2018.03.16 06:36:26 Z